

ANGELUKO IKASLEAK

HIRUGARREN MAILA 92-93.

ALKATE JAUNA 2

-Nor dago?

Erreposturik ez...

-Nor dago?... Migel zarelor?

Errepostu tuntik oraino.

-Nere Espos Migel ote da atean?

Hitzik ez berriz ere.

Orduan, osoki iratzartzen da Manuela; gogoratzen zaio bozka eguna zela egun hura, eta ikharan idekitzen edo hobeki erraiteko, zabaltzen du athea, arraxina erortzera uzten duela, ikhararekin:

-Zer alkate jauna ote dagozor?...

-Nor dago arren! doña Pocodinerero!

Eta burua alto, papoa aintzin, bipher gorri soka bat sudurraz joiten zuela, jaun erretora aldare aintzinean bezain xut, sartu zen Alkate Jauna, bere sukaldean...

Handik bertze igandean gero ziren lanak, zinak eta minak, Migel Alkatearen etxean! Herriko kontseilua bildu behar zen lehen aldikotz, jaun alkateari bazkari eder baten emaiteko: urinik gabeko bazkari bat, dena olio, kafeak eta oro olioz.

Bainan, han ziren xintximariak! Aste guzian uriz leherra egin zuen, eta bokatarat eman athorra nihuntik ezin idorrarazi zuten. Eta futxo, Migelek ez zuen bertze athorarik, soinekoaz bertzerik. Eta soineko hura, garbiki erraiteko, ez zen xuri-purifikatua. Ja, hiru aste hartan berekin zeraukan gau eta egun!... Ai! Jesus! Jesus!... zer egin? Eta jadanik hamekak eta erdiak hurbiltzen ari!...

Manuela, emazte baliosa hartu zuen Migelek, czkontegunean. Manuelari gogoratzen zaio zerbait. Harmairutik atheratzen du mokanes pollit bat, eta xerraka xerraka urratzen. Gero, polliki, polliki, ixkilima¹⁰ batzuekin, xerraño hetarik zonbeit ezartzen diozka Migeli, lephoan. Kamisola jauntzi eta, iduri zuen Migelek esposeko athorra soinean zuela; xerrako hek hain ziren ongi emanak! Jendearen hobeki enganatzeko, gero, Manuela ihizi harek, azken xerra bat, handiena eta pollitena, gerruntzetik poxi bat ageri, erdi dilindan bezala eman zuen. Eta, Migel alkatea, emazteari bi besarka-aldi emanik, etxeko gerrera iretsi balu bezain xut, karrkari beheiti, herriko etxeari buruz joan zen agudo, berantegi helduko zela beldurrarekin.

Herriko jende guzia, athe aintzinetan zagon, tente potente, Alkate-Jaunaren goait.

Karrika buruan agertu zeneko, oihu bat alde orotarik:

"Biba Alkate-Jauna! Biba!... Alkate-Jauna, athorra dariozu! athorra!"

Eta Alkate-jauna loriatua, zeren haren athorari, berak nahi bezala, ohartu zitzaion jendea, jauzi batean sartu zen herriko etxean, oihuka ziolarik: "Duenak durio, duenak durio!..."

Handik ondoko asteen, hirugarren athorra bat eginarazi zuen Errekaxarreko Alkate-Jaunak. Deskantsuan bizi da gerozko. Zer hel ere, hirugarren athorra hura han du, harmairuan, xarparen sahetsean.

HOGOI TA ZORTZIGARREN ERAKASPENA

ELHEKETA - ASTE HUNTAKO ELHEPIDEA.

1. Manuelaz zer diozue?

2. Eta arway -

3. Migelen athora et Manuelaren jenda

ADITZ IKASKUNTZA -

31. berekin zaukan, ezartzen diozka

33. iretsi balu, 34. ohartu zitzaion

31. EDUKI - Indicatif imparfait.

Hura = le, la.

Nik naukan = je le tenais

Hek naukan = tu le tenais

Zuk zinaukan = vous le teniez

Harek zaukan = il le tenait

Guk ginaukan = nous le tenions

Zuek zinaukaten = vous le teniez

Heiek zaukaten = ils le tenaient

32. UKAN - Conj. à 3^e pers. pl. pr. Indic. Présent

Hari = à lui - Objet = Pluriel

Nik dizkiot (dizkiot) = je les lui ai

Zuk dizkiogu (dizkiogu) = vous les lui avez

Harek dizkio (dizkio) = il les lui a

Guk dizkiogu (dizkiogu) = nous les lui avons

Zuek dizkioguz (dizkioguz) = vous les lui avez

Heiek dizkiote (dizkiote) = ils les lui ont

33. UKAN - Suppositif. 1^{re} Form. Eventualité

prochaine (à présent) Objet pluriel

Nik banu (si je l'avais) banitu (si je les avais)

Hek banu banitu

Zuk bazinu bazinute

Harek balu balitu

Guk bazinu bazinute

Zuek bazinute bazinutezte

Heiek balute balituzte

Objet singulier